

“Saguzarrek berezko balioa dute”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Nerea Vallejo López
Zoologoa



ARG.: Ibai Biritxinaga/EHU.

Nerea Vallejo López

Bilbo, 1995.

- **Biologia** ikasi zuen **EHUn**, eta jarraian, **Bio-dibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa Unibertsitate Masterra** egin zuen.
- Egun, **doktoregaia** da, eta Geoffroy saguzarrraren ekologia trofikoak ikertzen dabil, EHU-ko Zoologiako sailan.

Sarean arrakasta handia dute katuek, txakurrek eta etxekotutako beste animalia batzuek. Nerea Vallejo López biologoak, ordea, saguzarrak ditu gogoko. Hain zuzen, haiei buruzko tesia egiten ari da EHU, eta arrazoi ugari aipatzen ditu, azaltzeko zergatik diren hain animalia interesgarriak: "Jendeak ez ditu ezagutzen, baina ez da inguruan ez ditugulako. Euskal Herrian 27 saguzar-espezie daude, eta munduan, 1.200. Era askotakoak dira, eta beste mundu bat balira bezala. Adibidez, ugaztun hegalarik bakarrak dira, eta hori, ebolutiboki, oso berezia da".

Vallejoren ikergaia Geoffroy saguzararen ekologia trofikoak da. "Geoffroy saguzarra Europan bizi den saguzar txikitxo bat da, eta nik bere dieta ikertzen dut, eta nola aldatzen den dieta denboraren arabera, koloniaren inguruko paisaiaren arabera eta abar".

Vallejo kezkatuta dago saguzarren habitaten galarrarengatik. "Saguzar-espezie asko daude mehatxupean, Euskal Herrian ere bai: ia guztiak intereseko espezie gisa sailkatuta daude, eta lau, uste dut, arriskuan. Orokorrean, haien arrisku-faktore handiena da gordelekuen degradazioa eta desagertzea, bai kobazuloetan eta baserrietan bizi direnena, bai basoko saguzarrena".

Izan ere, kobazuloak oso degradatuta daude, eta inpaktu handia jasaten dute, aisialdiko eta kiroleko jarduerak modu masifikatuan egiten direnean. Baserriak desagertzearekin batera ere, gordeleku

batzuk galtzen doaz. Eta basoetan bizi diren saguzarrak zuhaitz zaharren zuloetan gordetzen dira; ez da erraza, baina, halakoak topatzea: "Gure mendiak landaketez beteta daude, eta horrelakoetan saguzarrek ez dute non gorde".

Gordelekuen arazoaren ondotik, beste arazo bat ere aipatu du Vallejok: elikadura. "Azken urteotan, gure inguruko paisaia asko aldatu da, eta, gizakia-eraginarengatik, asko degradatu da. Eta horrek eragin zuzena du biodibertsitatean; hala, mundu osoan ikusi da intsektuak desagertzen ari direla. Euskal Herriko eta munduko saguzar gehienek intsektuak jaten dituzte, eta, gainera, intsektu asko behar dituzte bizirauteko".

Datu bat eman du: gau bakar batean, beraien pisuaren erdia baino gehiago jan dezakete. Izan ere, metabolismo azkarra dute, eta energia asko behar dute hegan egiteko, eta kumeak aurrera ateratzeko. "Orduan, saguzarrek asko nabaritzen dute paisaia-aldaketek eta nekazaritzaren intentsifikazioak biodibertsitatean duten eragina".

Vallejoren iritziz, ez da erraza jendeak ulertzea zein garrantzitsua den saguzarrak ikertzea. "Azkenaldian egin den dibulgazioari esker, jendea hasi da ezagutzen zer onura eragiten duten ekosistemetan: batzuk, tropikoetan, polinizatzaileak dira edo haziak barreiatzen dituzte; gure inguruan, batez ere, horrenbeste intsektu jaten dituztenez, hasi gara ikertzen ea izurriteen kontrako eragin positiboak duten... Baina, nire ustez, hortik haratago joan behar dugu, eta saguzarrei eman berezko balioa".

Azken finean, aldarrikatzen du ekosistema globalean funtsezko rola dutela, eta ekosistemikoki duten balioetatik dela garrantzitsua haiek ikertzea. ●

